

## AURKEZPENA

Batezbesteko bizi-itxaropena handitzearen ondorioz gertatu den zahartze demografikoak pentsioen gastua handitzera eramaten gaitu. Bilakaera hori bere joera orokorrari dagokionez eztabaiaezina bada ere, bere magnitudea dela kausa eztabaida handiak daude. Hain zuzen ere, perspektiba demografikoak ez direlako hain nabariak, bereziki azkeneko hamarkadetan ezagutu dugun batezbesteko bizi-itxaropena etorkizunean mantenduko den ala ez. Hori aurrerapen medikoaren bilakaeraren arabera izateaz gain, —zentzu negatiboan— geroz eta gehiago zabaltzen ari diren ingurumenaren kutsadurak, urbanizazio masiboak eta lanaren neke berri eta zaharrek giza bizitzari nola eragin behar dioten ere eragina izan lezake. Zahartzeak gizarte gastuaren hazkundean sortzen dituen ondorioak hezkuntzan eta murrizten ari den biztanle gazteei zuzendutako bestelako zerbitzuetan izandako gastua murriztuta oreka daiteke, aipatutako ondorio horien barruan, bestalde, pentsioez gain, adinean aurrera joateak dakarren osasun gastu handiagoa ere sartzen da. Nolanahi ere, edozein jarrera neo-malthusianoren aurrean, bizi-itxaropenaren hazkundeak —eta hori osasuntsu eta nekerik gabe gertatzea— babestu eta mantendu beharreko aurrerapen soziala dakar.

Pentsioei dagokienez eztabaidatu beharreko kontuak anitzak dira. Horrela, hala zahartzearen ondorioz gertatutako pentsioetako gastuaren hazkundera epe luzera begira mantentzeko aukerari buruzkoak (pentsio-sistemen «finantza-iraunkortasuna» deitutakoa) nola banaketan oinarritutako erregimenek eta baita kapitalizazioan oinarritutako erregimenek ere demografia eta finantzen egoera berri honetan izan behar duten eginkizunari buruzkoak daude. Banaketa-erregimenen inguruan, pentsioen zenbatekoa murrizten duten erreformak ezarri behar dituzten eta, aldi berean, geroz eta «kontributiboago» izan behar duten, hau da, ordaindutako kotizazioen zenbatekoaren arabera bakarrik dauden pentsioak eman behar dituzten edo, bestela, egoera ahulagoan dauden kategoria sozio-profesionalen alde berriro banatzeko irizpideak izan behar dituzten eztabaidatzen dituzte. Kapitalizazioko erregimenen barruan, eztabaidatzen ari diren kontu horiek, banaketa-erregimenak osatzeko edo ordezkatzeko bere eginkizunari buruzkoak izateaz gain, bestelako gai batzuen inguruan ere badira, hala nola inbertsioek izan ditzaketen arriskuengatik diru-sarreraren garantia izatea, kotizazio

definituen edo prestazio definituen eredukoak izan behar duten, kapitalizazioa profesional eta indibidualaren artean banatzea, e.a.

Lan Harremanak izenekoaren ale honetan eztabaidan dauden kontu guztiei heltzeko asmoa izan dugu. Gainera, horien inguruko ikuspegi ezberdinak ere islatzen dituzte. Aurreneko bost artikulua Gizarte Segurantzaren pentsio eta prestazio publikoei buruzkoak dira. Antoine Math eta Pierre Concialdi jaunek 2002. urteko urrian Parisen pentsioen finantzaketari eta adineko pertsonen diru-sarrerei buruz egon zen nazioarteko solasaldi baten emaitza nagusien berri ematen dute. Ondorio nagusietako bat azkeneko hamarkadan Europako Batasuneko pentsio-erregimenetan gertatu diren erreformek, banaketaren osagaia ahultzean eta kapitalizazioa bultzatzean, pertsona pentsiodunen diru-sarreraren desberdintasuna handitzen lagundu dute, ondorioz, horietako batzuegan pobrezia gertatzeko arriskua handitu dela. Nire artikuluan pentsioen Espainiako sistemak diru-sarrerak ordezkatzeko duen funtzioa eta teorian duen eskuzabaltasuna errealitatean zergatik ez den hainbesterakoa aztertzen dut. José Francisco Blasok mendetasun-asegurua —oraindik ez dagoena— zahartzearen aurkako babes osatzeko beharri emandako erantzun gisa ematearen problematika aztertzen du Autonomia Erkidego zenbaitek hartu dituzten ekimenak xehatzen ditu. Hedwige Peemans Europako emakumeen pentsioen egoera, gizona aldean hain txikiak izatearen era guztietako arrazoiak, Erkidegoko erakundearen politika eta «pentsioen indibidualizaziori» buruzko polemika aztertzen ditu. Nuria Moreno-Manzanaroren artikuluan emakumeek zahartzaroan izan beharreko babes sozialari heltzen zaio, ildo beretik, soldatuko lanean txertatzeko dauden eragozpenen ondorioz erretiro-pentsioak zahartzaroan dauden premiei erantzuteko tresnetako zati bat baino ez direla azpimarratu du, izan ere, alargun-pentsioek ere antzeko garrantzia baitute. H. Peemansen artikulua ildo beretik, Estatu espainiarrean emakumeen pentsioen eskasiaren arrazoi bereziak eta baita egoera horretan behar baino indar txikiagoz eragin duten legearen azken erreformak ere aztertzen ditu.

Beste bost artikulua gehiagotan pentsio osagarri profesional edo enpresakoen inguruan aritzen dira. Carlos Bravoren artikulua enpresako aurreikuspen osagarriaren panoramika eskaintzen du, horrela, administrazio publikoetan geroz eta garapen handiagoa duela bere indargunea dela, horiek hauen presentzia dagoeneko finkatuta dagoen enpresa handiekin bat egiten dutela, eta, bestaldekik, ahulgunea enpresa txiki eta ertainen artean garapen urria izatea dela seinatzen du.

Ignacio del Barco bere artikuluan, prestazio definitu eta ekarpen definituen ereduaren eragozpen eta abantailen konparazio-azterketa egin ondoren, enpresek kostuari dagokionez ziurtasuna izatea eta prestazioetako helburua «ekarpen definitu aktuarial» edo «cash balance plan» izenekoaren bidez uztartzen dituen eredu misto baten proposamena formulatzen du.

Carlos Morenoren artikulua *Lan Harremanak* aldizkariaren 9. alean «Etika eta enpresari» buruz ageri zen gaiari heltzen dio. Enpleguko pentsio-funtzen eta

gizarte-aurreikuspeneko bestelako erakunde batzuen inbertsioen erabileraren problematikari erantzuten dio, hori izendatzeko Robin Blackburnek «kapitalismo grisa» esatera baliatzen du. «Gizarte-arduratsuko» kalifikazioa merezi ahal izateko eta, era berean, errentagarritasun, dibertsifikazio eta arriskua kontrolatzeko helburu orokorrekin bateragarriak izan daitezten bete behar dituzten etika eta ingurumeneko irizpideak proposatzen ditu.

Virginia Oregik Euskal Autonomia Erkidegoan Elkarkidetza erakundearekin batera dagoen borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde handienaren esperientzia azaltzen du, GEROA PENTSIOAK EPSV alegia.

Azkenik, José Antonio Gonzálezek eta Rosa María Ahumadak oso teknikoa den baina pentsio osagarrien erakundeen etekinean gertatu diren gorabeherak gaurkotasunaren lehen lerroan jarri duten gain baten gaineko gogoeta egiten dute, gizarte-aurreikuspeneko erakundeen ondareen kudeaketa ebaluatzea alegia. Etekina eta arriskua neurtzeko dauden aldagaiak, batera eta isolatuta, aztertzen dituzte enplegu-sistemaren Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak bereziki lantzen dituztela.

MIKEL DE LA FUENTE LAVÍN  
Lan-Harremanak U.E.ren Zuzendaria  
U.P.V./EHU